

Arrasate

P R E S S

1997ko
maiatzak 9
362. zenb.

IKUSPEGIA
J.L. AZKARATE

IRITZIA
GOIZANE
JAUSORO

30 GALDERATAN
JOSEBA
ARREGI

KIROLAK
UNAI DIEZ

KULTURA
LUIS
CARRASCO

BERRIAK
UDAL
PLENOA



Txinatarrak Arrasaten

Taldea: Lanònima Imperial
Koreografiak: "Els gestos del camí" • "Ecos del silenci"

DANTZA GARAIKIDEKO XIV IHARDUNALDIAK
MAIATZA 1997

MD
97



MAIATZA DANTZAN

Amaia antzokia • Maiatzak 10 (larunbata)
Arratsaldeko 8etan • Sarrera: 800 pta. • Gazte-Txartelarekin: 600 pta.



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Kirola eta pasioa

Lerro hauek idazten ditudan bitartean Urbina-Maltzaga saskibalo taldea EBA ligako jeitsiera play-offa jokatzeko ari da. Arrasateko eskubalo taldea joan zen hilean jeitsi zen lehen mailatik bigarrenean, eta futboleko Mondra iaz, 3. mailatik preferentera. Kirol ekintzetara joaten den afizionatu kopurua, gainera, behera doa urtetik urtera.

Hau guzti gutxi balitz, Arrasate saskibaloiko zuzendaritza osoak datorren urtean ez duela lanean jarraituko iragarri du. Euren lekukoa inork hartzen ez badu, espero den



J. L. Azkarate

bezala, datorren urtean ez da saskibaloirik egongo Arrasaten. Titularra hor dago: "Herri mailako kompetiziozko kirola, krisialdian".

Kirol-hezitzaile askoren iritziz kompetitiboa ez den kirola indartu beharra dago, eta ez bestea. Niretzat lehiak gazta eta berakatzat jartzen

dio kirolari, eta txapelketarik ez balego, Ronaldo edo Indurain bezalako kirolariak pertsonaia anonimoak izango lirateke; bata nekazaria eta bestea, ez dakit, zapataria.

Kirolari ez-kompetitiboak pertsonaia bakartiak izaten dira: karretera ertzetik zoroen pare takarradan ibiltzen direnak eta

horiek. Atleta hauek, bere buruaren kontrako lehia isilean sufrimenduaren sekretu guztiak ikasten dituztenak, badute bere enkantua, badute bere poesia. Baina, tira, badirudi herri batek behar den moduan izateko kompetizioa behar duela. Bestela ikusi nola disfrutatzen duten ikurrinazale guztiak Frantziako Tourrean. Ematen du, ez dakit, afizionatuen esfortzua ere lagungarria dela, funtsezkoa kasik.

Gauzak horrela, badirudi maisu industrialen leku honetan ez garelako oso apasionatuak herri mailako kirolari dagokionean. Martxa honetan, eta artikulua hasieran aipatu ditudan arrazoiak kontuan hartuta, Arrasaten kirol kompetitiboa desagertu egingo da laister. Eta bestea ere bai, Musakolako kiroldegia konpontzen ez badute, behintzat. ■

"Niretzat lehiak gazta eta berakatzat jartzen dio kirolari, eta txapelketarik ez balego, Ronaldo edo Indurain pertsonaia anonimoak izango lirateke"

362. zenbaki honetan

1997ko maiatzaren 9an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	10/11	Kulturaren txokoa	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	12/13	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	15/17	Ikusi eta entzun	33
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/22	Foto zaharra	34

Ikuspegia

J. L. Azkarate **3**

Euren ikuspuntutik

Goizane Jausoro **8**

Aurrez aurre

Jon Izagirre..... **24/25**

Kulturaren txokoa

Luis Carrasco **27**

Hogeita hamar galderatan

Joseba Arregi **30**

Asteko gaia

Txinatarrak:

dragoen herritik dragoiaren herrira..... **15/17**



Fernando Li, txinatarrek Arrasaten egiten duten bizimoduaz berbetan.



ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, Zuzendaria: Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ibaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcel. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Disinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabín Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urtearen, Fidel Bereziar, Bixente Piñogaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Latona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lego-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerutu Koop. E. (Zubillaga, Oriaga).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Fotu Akademiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

9

ostirala

■ ZINEA

La buena vida Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

■ ELKARTEEN ARTEKO MUS TXAPELKETA

Elkarteen arteko mus txapelketako finala Alkartu elkartean arratsaldeko 6.30etan. Finalistak: Santo maina eta Torrepe. Ondoren afaria.

■ BESAIDEREN MENDI ASTEA

Diapositiba emanaldia. Gaia: K2. Emalea: Juanjo Sansebastian. Arratsaldeko 7.30etan Monterronen.

10

larunbata

■ ZINEA

Un pueblo llamado Dante's Peak Alai zinemán 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ BESAIDEREN MENDI ASTEA

Mendi bizikleta irteera. Ibilbidea: Arrasate, Durakogain, Kurtzeta, Teilamendi eta Arrasate. Irteera goizeko 9etan Musakolako kiroldegitik.

■ TRITIKILARI EGUNA

Eguerdiko 12etan kalejira. 2etan bazkaria Alkartu elkartean. Arratsaldeko 6.30etan *Kristina Solano* eta *Amaia Oreja* trikitilariekin dantzaldia Herriko plazan.

■ CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA

Goizeko 10etatik 12etara futbito txapelketaren finalak. 3etatik 5etara umeendako jokoak. 5etatik 8.30ak arte jaialdi folflorikoa elkartearen egoitzan. 9.30etan afaria eta dantzaldia *Ibaiak* taldearekin

■ MAIATZA DANTZA IKUSKIZUNA

Lanónima Imperialen dantza ikuskizuna Amaia antzokian gaueko 8etan. Sarre-ra 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

■ ESKORIATZAKO ESKOLAREN URREZKO EZTIAK

10.30etan artisau eta baserriko produktoen feria. 11etan umeentzat jolasak. 1etan omenaldi ekitaldia. 2.30etan herri bazkaria. 5etan bertsolariak. 6etan pailazoak ikastolan. 9.30etan *Etzakit* taldearen dantzaldia.

11

igandea

■ ZINEA

Un pueblo llamado Dante's Peak Alai zinemán 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Kanpazar, Durango, Mañari, Urkiola, Otxandio eta Arrasate, 72 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrondik

■ TXIRRINDULARI SARIA

Musakolako XII. Txirringulari saria goizeko 10etan.

■ HERRI URRATS JAIA SENPEREN

Herri Urratsera joateko AEDk antolatu duen autobusa goizeko 8etan irtengo da Garibaitik.

■ CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA

Arratsaldeko 4etan mus, cuatrola, tute, chinchon eta domino txapelketetaren finalak. 7.30etan elkarteko gazteek *La Piedra maravillosa* antzezlan antzeztuko dute.

12

astelehena

■ ZINEA

Un pueblo llamado Dante's Peak Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Angola, iragana, oraina eta etorkizuna. Hizlaria: Raul Ruiz de Azua. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta 07aren alde.

13

asteartea

■ ZINEA

Un pueblo llamado Dante's Peak Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

Duro Felguerako langileen hitzaldia eta diapositiba emanaldia arratsaldeko 7etan Monterronen. Antolatzaileak: CCOO, ESK-CUIS, LAB eta STEILAS.

14

asteazkena

■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Laguntza humanitarioa. Hizlaria: Jose Antonio Fernandez de Legaria, Medicos Sin Fronteraseko kidea. Arratsaldeko 7etan Monteronen. Harreman taldeak antolatuta 07aren alde.

■ UDALPE ELKARTEKO URREZKO EZTIAIK

Gaztari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Antxon Perez Calleja. Arratsaldeko 7.30etan Udalpe elkartearen.

15

osteguna

■ ZINEA KLUBA

Kids Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

■ SAN ISIDRO EGUNA

Goizeko 11.30etan meza nagusia. 2etan auzoko base-ritarrek San Isidroren ome-
nez bazkaria egingo dute.

■ HITZALDIA

Gaia: Intsumisioa, kode penal berria eta EUDIMA. Arratsaldeko 7etan Monteronen. Arrasateko Antimilitaristak, EUDIMA eta Arrasateko Udalak antolatuta.

■ ITXIALDIA ERDU-AEKKO EUSKALTEGIAN

Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzearen alde Arrasateko Erdu-AEKK itxialdia egingo du euskaltegian.

■ UDALPE ELKARTEAREN URREZKO EZTIAIK

Hitzaldia. Gaia: Elikadura eta osasuna. Hizlaria: Eukeni Olabarrieta. Arratsaldeko 7.30etan Udalpe Elkartearen.

■ AEKK ANTOLATUTAKO ENKARTELADA

Maiatzaren 16an goizeko 10.30etan Euskaltegitik azokara Erdu-AEKK enkartelada antolatu du. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen alde.

■ ERAKUSKETA MONTERRONEN

Haurtzarora eta merkataritza zuzena erakusketa Monterronen maiatzaren 11tik 18ra. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jai egunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte. Harreman taldeak antolatuta.

■ SAN ISIDRO JAIK MUSAKOLAN

Maiatzaren 15tik 18ra arte makina bat ekintza antolatu dute Musakolan. Dantzaldiak, lehiaketak, kirol ikuskizunak eta motorren kontzentrazioa ez dira falta izango. Urtero moduan, umorea eta festa giroa izango da nagusi San Isidrotan.

■ AUTOKONTROL MENTALAREN IKASTAROA

Maiatzaren 10, 11, 17 eta 18an goizeko 9etatik gaueko 10ak arte autokontrol mentala egiteko Silva metodoaren ikastaroa emango da La Merced ikastetxean. Ikastaroaren aurkezpena doanekoa da eta maiatzaren 10an egingo da goizeko 9etatik ordubata arte La Merced ikastetxean.

■ PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN

Maiatzaren 18a arte Rakel Perez de Arenazaren pintura erakusketa Harresi aretoan. Orduetgia: arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

■ SEXUALITATE TAILERRA

Maiatzaren 13tik 29a arte, astearteetan eta ostegunetan arratsaldeko 6etatik 8ak arte. 25-45 urte arteko emakumeei zuzenduta. Izenematea Emakume Sailean (79 41 39) eta Gazte Bulegoan (77 00 65).

■ UDALPE ELKARTEAREN URRZKO EZTIAIK

Udalpe Elkartearen urrezko eztaiak ospatzeko ekitaldien artean bazkaria antolatu da maiatzaren 25erako. Interesatuok maiatzaren 18a baino lehen eman izena elkartera bertara joanda edo telefonoz deituta (79 14 95).

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

BIRIBIL

Edari eta tabakotan
espezialistak

Zarugalde, 35 • Tel.: 79 09 53 • ARRASATE

MARIANO ANDRADE SIGANO

TAXIA

24 orduko zerbitzua
Hotela / Aireportua /
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 9**
 • Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 • Gauez: Cuellar. Bergara.
- Larunbata 10**
 • Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
 • Gauez: Estella. Bergara.
- Igandea 11**
 • Gaueko 10ak arte: Am ezua. Santamaina.
 • Gauez: Estella. Bergara.
- Astelehena 12**
 • Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
 • Gauez: Mozos. Bergara.
- Asteartea 13**
 • Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
 • Gauez: Camacho. Bergara.
- Asteazkena 14**
 • Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
 • Gauez: Puy. Bergara.
- Osteguna 15**
 • Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina.
 • Gauez: Camacho. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualitoria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larnaldiak) 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 46
 • Espezialitateak 77 05 78
 • 77 12 64
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziazkiak 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 79 12 22
 PESA 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
 Monterron 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 79 58 77

IRAKASLE ESKOLAKOOK ERE ALTERNATIBA DEMOKRATIKOAREKIN BAT

Gaur, apirilak 25, Alternatiba Demokratikoa eta euskal presoak Euskal Herriratzearen alde irten gara Irakasle Eskolako ikasleak. Badira bi urte ETAk Alternatiba Demokratikoa kaleratu zuela eta estatu espainolaren erantzun errepresiboa behin eta berriz sufritu dugu. Euskal presoen egoerarekiko duten jarrera pasiboa ere azpimarratzekoa da, dispersio, estradizio, tortura etab.en bidez lagunduta doalarik.

Hor ditugu Elejalderen tortura ezkutatua eta Josu Zabalaren "Basajaun"en erahilketa.

Baina gizarteak, oraindik ere itsu jarraitzen du honen aurrean, pasibo jarraitzen du bake alternatiba batean aurrean zeinek bere independentzia bideratzera eta eraikitzaera bul-tzatzen dien. Ez dute ezeregi-ten, legez, Euskal Herrian egon behar luketen presoan alde bere pasibitateaz euskal gizartearen eskubideak zapal-tzen ari da.

Aski da! Ez utzi zure eskubideak zapal ditzaten!

Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak

TELEFONICAREKIN ERE EUSKARAZ

Fakturak izango dira, duda barik, gauza gogaikarrien artean gogaikagarrienetako bat. Hala eta guztiz ere, Tele-

fonicak bidalitako azken gutu-nak eskertzeko arrazoirik eman digu, euskararen normalkuntzaren alde dihardu-gunoi, behinik behin. Kontua da telefono konpainiarekin bezeroek ez ohiko gutun bat aurkitu dugula, azken ordain-agiriarekin batera. Bertan, Autonomi Elkarteak hiz-kuntza ofizialak bi, euskara eta gaztelera, direnez, faktura bie-tariko zeinetan jaso nahi dugun hautatzeko parada eskaintzen zaigu. Honetarako, erantzun-boletina bidali digu, bertan aukeratutako hizkuntza zehaz-tu eta lehen bailehen itzuli die-zaiogun. Egunez egun euska-raz bizitzeko aurkitzen dugun zailtasun mordoak kontuan har-tuta, poztekoa da Telefonica-ren ekimena, enpresa erral-doiek, salbuespenak salbues-pen, euskararekiko begirune gutxi erakusten baitute. Hale-re, mesede makala egingo genioke, guk ere, euskarari telefono konpainiaren jarrera txalotzera mugatuko bagina. Erantzunkizuna euskaldun bakoitzaren esku dago orain. Ezin dugu euskaraz bizitzeko aukera bakar bat ere alferrik galdu. Horrexegatik, Telefo-nicak bidalitako erantzun-boletina bete eta zuon faktura euskaraz jaso nahi duzue-la adieraztea proposatzen dizuegu. Gogoan izan, gainera, eskaera berandu barik egitea komeni dela, konpainiaren eskutitzak dioenez, erantzun-ik izan ezean, faktura gazte-leraz jaso nahi dugula pen-tsatuko baitute.

AEDko Sentsibilizazio Saila

ORDU EXTRARIK EZ!

Lana daukanak ere, ordu extrak sartuz, lan munduan jasaten ditugun hainbat era-so mantentzen laguntzen du.

Gaur egun dagoen lan-gabeziarekin, ezin da jasan ordu extrak sartzea, doblete-ak egitea... honek daraman arriskuarekin eta kontuan hartuz ekintza hauek lan-postu finkoak kentzen diz-kiela langabetuei.

Gure ustetan Euskal Herrian sartzen diren ordu extren ondorioz 40.000 lan-gabetu daude. Gainera ordu extrak sartzeak gure errei-bindikazioak; soldata justu bat, lan orduak murriztea... moteldu egiten ditu eta batez ere insolidario bihurtzen gai-tu.

Egoera honen aurrean zera proposatzen dugu: Eus-kal Herriko sindikatuekin akordio intersindikal bat egin ordu extren kontrola eta denuntzia egiteko: ordu extrak sartzen diren enpre-setan, ordu horiek enplegu bihurtzea; klausula bidez pak-to eta hitzarmenetan ordu extrak ezabatzea sartzea.

Zure enpresan ordu extrak sartzen badira salatu ezazu.

Arrasateko LAB

Memesa
79 42 22

UGARAN
jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

MECA
GRUA ZERBITZUA
 Grua tel.: 989 34 98 29
 Renault Asisten.: 900 365 000
 24 orduko zerbitzua 365 egunetan



Beti desiratu izan duzun zerbait?




Fernando Gomes
Ikaslea
(14 urte)

Ikasbidaian Bartzelonara joatea. Orain hori eskatuko nuke.



Aitziber Zulaika
Langilea
(24 urte)

Pertsonalki, eguneroko lanean pozik bizi izatea, eta orokorrean Euskal Herriko gatazka konpontzea.




Salustiano Ortega
Langilea
(55 urte)

Lana egotea denondako hobeto bizi ahal izateko.



Leire Fernandez
Ikaslea
(13 urte)

Mutil batekin enroilatzea. Ilehoria, begi urdinekin, altua eta ni baino nagusiagoa.



Gixon Bilbao
Ikaslea
(19 urte)

Lasai eta pozik bizi izaten jarraitzea.



Isabel Apaolaza
Langilea
(34 urte)

Loteria tokatzea. 200en bat milioiekin nahiko.



Juan Jesus Enriquez
Ikaslea
(19 urte)

Motor bat, eta atzean neska eder bat.



Angelines Ruiz
Etxekoandrea
(54 urte)

Familia ugaria izatea. Alaba bakarra naizenez, beti bota dut faltan anai-arreba gehiago izatea, hamar bat anai-arreba.

REPLAY
MADE IN ITALY

MAZA
B O Y S

ERDIKO KALE, 42 • TEL.: 79 14 53 • ARRASATE

SOVIET
URBANTRIBE
Levi's
GUESS®

USTEAK USTE

Saskirik gabeko saskibaloia

Orain gutxira arte Urbina-Maltzaga izan dena Eibar-Vitoria bihurtu dute, eta horrela izango da aurrerantzean ere. Hortaz, Urbina-Maltzaga izendapena desagertuta. Babeslearen izendapenaren galera-rekin batera, nahiz eta zerikusirik ez izan, desagertze hotzak entzun daitezke Arrasateko saskibaloitaldearen inguruan.

Urte mordoko lana dute bizkarren gainean herriko saskibaloitaldekoek. Maila xumeenetan lanean egotetik, inork sekula pentsatuko ez lukeen mailara eraman zuten taldea, ACB ligatik gertu. Di-da batean galdu du haizea denbora luzez eta izerdi eta neke handiz puztutako globoak, etorkizuna oso beltz izateraino.

Play-offa jokatu du gaur Urbina-Maltzagak Iturripen. Galtzen badu adio kategoriari. Bulegoetako play-offa larriagoa da oraindik, zuzendaritzarako ordezkorik aurkezten ez bada konpetizioko saskibaloiak agur esango diolako Arrasateri. Jakina, irabazteko gutxi saskibaloiairen saskian. Sasoi txarrak dira musutrukeko lanerako.

Beñardo Kortabarria



Badatoz Udalekuak!

Goizane Jausoro

Udaberrian murgildurik eta uda usaina somatzen denean (eguraldi petral honek gaur beroa eta bihar euria ekartzen badigu ere) Txatxilipurdiren barneak zeharo astintzen dira. Badatoz udalekuak!

Guztia mugitzen da gure baitan. Erraldoi bihurtu den udalekua aurrera ateratzeko prestakuntza lanari ekiten diogu; udaleku ezberdinak diseinatu, deialdia zabaldu, begirale taldea bildu... Ilusioa nagusi da gure lanean; gero-ago, haur eta gaztetxoen ilusioa bihurtuko dena.

Begirale taldea elkartu eta guztiok irrikaz erronka berri honi aurre egiteko programaketak osatzen hasiak gara, adin bakiotzari ego- kituko zaion programa-keta noski.

Haur eta gazteen gustu, gogo eta beharrak ezagutu behar izaten dira ekintzak eta programak burutzerakoan, beti ere helburuekin bat datozenen. Beraz, begiraleak haur-tzarora bueltatzen dira, haur-raren tokian jarriz zer nahiko duten asmatzeko xedearekin.

Egungo begirale asko gainera, garai batean Txatxilipurdirekin ibilitakoak dira eta ilusio guztia jartzen dute bere garaian bizi izandako momentu zoragarriak, gaur, haur eta gazte direnekin berriz bizi

“
Neketsua bada ere,
eguna bukatzean
nekearen gainetik
satisfakzioa nagusi
”

nahiean.

Hamabostaldi batetako programazioa egiteak lana eta denbora asko suposatzen du. Baina zeregin honetan igarotako uneak ez dira alferrikoak izaten. Ondoren, haur eta gaztetxoengandik jasotzen diren harrera ezinhobeak esfortsu hori eta gehiago merezi du. Haur eta gazte hauen aurpegi alaiak, eguneroko barreak eta azken eguneko negarrak gure izerdiak aski asetzen dituzte.

Udalekuen martxa neketua izaten bada ere, eguna bukatzean nekearen gainetik satisfakzioa nagusitzen da, entzun besterik ez dago begirale taldea biltzen denean ahonan dituzten bitxikeri eta kontu guztiak.

Uztailean, udalekuen presentzia nagusi da herrian, kaleak neska-mutulez betetzen dira, alde batetik bestera, txapeltxoa buruan daramatelarik, kantu eta jolasean. Lagun berriak egin, ondo pasatu, udara atsegin bat igaro, esperientzia ahaztezinak bizi, konfidantzako giroan, etxetik edota ikastetxetik kanpo euskarenen erabilera ziurtatuz.

Azken hori baita, Txatxilipurdiren helburu nagusia, aisialdia bitarteko edo tresna duelarik, euskarenen normalizazioan urrats bat gehiago ematea, alegia.

Zatoz udalekuetara, esku zabalik hartuko zaitugu!

Goizane Txatxilipurdiko dinamizatzailea da.

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **LABen manifestazioa Arrasaten**

Deba Garaiko LAB sindikatuak Arrasaten ospatu zuten Maiatzaren Lehena. Iragarrita zegoen moduan, eguerdian manifestazioa irten zen Seberotik "langabeziaren eta eskusioaren aurka eman pausoak" lemapean. Erdiko kaleak zeharkatu ondoren, herriko plazan ekitaldi erreibindikati-boa egin zen. LABeko ordezkariak, langabeziaren aurrean ezer egin barik ez geratzea eskatu zuten. Gainera, gaur egun langileak esplotatzeko era berriak daudela salatu, eta gogorarazi zuten aldi baterako lan enpresek jarraitu egiten dutela. Herriko plazan esan zenez, LABek Euskal Herriaren eraikuntza nazionala du helburutzat, eta gaintzeko sindikatuei dei

egin zien helburu horrekin bat egin dezaten.

Antolatzaileak pozik azaldu ziren manifestazioak izan zuten erantzunarekin, euren arabera 600 lagunek parte hartu zuten eta.

■ **LAB Gazteak eta Tavex** Maiatzaren Lehenean LAB sindikatuak deitu zuten manifestazioan zenbait gaztek eta Bergarako Tavex enpresako langile batzuk parte hartu zuten.

Gazteak, Deba Garaiko LAB Gazteak taldearen aurkezpena egin zelako hurbildu ziren manifestaziora. Tavex-ekoek, berriz, greba mugagabea daudela gogoraraztea zuten helburutzat.

LAB Gazteak-eko kide batek esan zuenez, gazteei informatzeko eratu dute taldea, eta Deba Garaian gorpuztu barik badaude ere tal-

dea indarra hartuz joango dela uste dute.

■ **Kontzentrazio isila**

Zierbenan hil zuten poliziaren heriotza salatzeko, joan den igandean kontzentrazio isila egin zen Lau Bide plazan. Jose Manuel Garcia larunbatean hil zuten, eta ohi moduan hurrengo egunean bildu zen jendea kontzentrazioa egiteko.

■ **Kirola eta Euskara**

Udarako antolatu dituzten kirol ikastaroak aurkeztu zituzten asteazkenean Deba Garaiko Udaletako Kirol eta Euskara zerbitzuek. Uztailaren erdialdean egingo dira kirolari eta entrenatzaileei zuzenduta egongo diren ikastaroak. Kirolarien prestakuntza hobetzeaz gain, kirola eta euskara batzea dira ikastaroaren helburuak.



■ **AKP-REN ETA UDALAREN HITZARMENA**

Astelehenean hitzarmena sinatu zen Arrasate Kirol Proiektuaren eta Udalaren artean. Ikastetxeetako zuzendariak, Alkatea eta AUKEAren lehendakaria izan ziren ekitaldian. Hitzarmenaren bidez, proiektuari diruz laguntzen jarraitzeko konprometua hartu Udalak.

“Enplegua sortzeko ideiak ihes egin du lan-erreformarengatik. CCOO eta UGTk badakite lan-erreformek ez dutela enplegua sortzeko balio. 94ko erreformara arte, euren jarrera kritikoak hori azpimarratzen zuten. Dena den, ideia hori oso ona zen kontrako jarreran egoteko, edozein erreformari aurre egiteko, langabeziari aurre egiteko orduan ez zigulako aurrerapausuak ematen uzten. Eta ezin da ahaztu langabezia dela herrialdearen lehen arazo soziala. Gaur egungo lan-erreforma onartu eta gero, behin-behinekotasunari aurre egitea beste helbururik ez duen lan-erreforma, sortutako etena enpresariendako arrakastatsua da. Enplegua sortzea ez da dagoeneko enpresarien aurkako erreibindikazioa, baizik eta gizartearen gehiengo, gobernua, eta orokorrean ekonomia inplikatzeko duen zerbitzu iluna... inoren aurkako exigentzia bat”.



JUAN RAMON GARAI

Egin
1997-4-24.

BAI-BAI
Umeak
Moda
Lurrindegia
Opariak
Bañez Doktorea, 15
(San Andres) ■ ARRASATE
Tel.: 79 06 37

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

OSORIK
PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

Jaiotzak

- Aritz Fernandez Carmona. Apirilaren 2an.
- Deiane Flores Benitez. 6an.
- Paula Aranburu Unzueta. 7an.
- Irati Erostarbe Maiztegi. 8an.
- Jaime Perez Perez. 11n.
- Mirian Goitia De Gustin. 12an.
- Garazi Garitonaindia Uribe. 12an.
- Irune Loza Quintero. 13an.
- Amets Pie de Hierro Ezpeleta. 14an.
- Iosu Kortabarria Saez. 14an.
- Lourdes Garcia Oncala. 15ean.
- Sara Carmona Murillo. 16an.
- Ainara Errasti Garcia. 20an.

Ezkontzak

- Francisco Javier Garay Gallastegi eta Maria Jesus Gomez Gutierrez. Zibilez. Apirilaren 5ean.
- Francisco Gandia Sanchez eta Maria Esmeralda Arias Robledo. Elizaz. 5ean.
- Victor Manuel Ijurre Garro eta Maria Isabel Goñi Urranga. Zibilez. 12an.
- Luis Ugalde Mendieta eta Dorleta Gorosabel Azurmendi. Elizaz. 26an.
- Esteban Estrella Tena eta Maria Guadalupe Moro Mujika. Elizaz. 26an.

Hildakoak

- Luis Maria Madina Aranburu. Apirilaren 3an. 43 urte.
- Pilar Duinat Labandibar. 6an. 61 urte.
- Carmen Olazabal Larreategi. 8an. 76 urte.
- Angel Gregorio Azkarraga Ruiz de Azua. 11n. 81 urte.
- Jose Antonio Goitia Zubia. 12an. 57 urte.
- Jose Maria Arsuaga Menchaca. 13an. 67 urte.
- Dominga Erostarbe Kortazar. 21ean. 59 urte.
- Millan Zubizarreta Uribetxebarria. 22an. 82 urte.
- Sabino Arrieta Arregi. 23an. 82 urte.

Udal Plenoa

San Kristobalgo kanposantua handitzea plenoko gaien artean

San Kristobalgo kanposantua handitzeko proiektua onartzea proposatuko da gaurko plenon. Asmoa, hilerrian aldi baterako hilobi gehiago egitea da.

Bestalde, Zerrajera inguruan etxebizitzak egin nahi direla eta, inguru horretako arau osagarriak aldatzea eskatuko zaio udalbatzari. Orain arte gune industrialia izan da, baina aldaketarekin etxebizitzak egiteko aukera ere egongo da Zerrajera aldean. Gaurko plenon hasierako onarpena ematea proposatuko da, eta ondoren jendaurrean jarriko da alegazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Beste era bateko gaiak dagokienez, Euskaldunon Egunkariaren akzioak erostea eskatuko dela aipa daiteke. Guztira 40 akzio erosiko



Pello Urizarren azken plenoa izango da gaurkoa.

dira, bakoitza 25.000 pezetatan. Aurtengo aurrekontuetan zeregin horretarako milioi bat pezeta zuzendu zenez, seguruen eztabaida barik onartuko da puntu hori. Agurrik ere izango da ple-

noan. Pello Urizarrek zinegotzi kargua utziko du, eta bere ordez Javier Nafarrate izango da EAren zinegotzi berria. Lanpetuta dabilelako erabaki du Urizarrek kargua uztea.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56


beatriz
oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARLEXABALETA

Industriadenda F-0.4
Telefono: 791844
Fax: 792941

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

Arrasateko turismo zentroari erantzutea falta

Deba Garaian turismoa garatzeko zentroa eratu nahi du Mankomunitateak. Zentroaren helburua turismoa bultzatzeko promozioa eta gestioa egitea izango da, eta sektore pribatuari ere ekimen horretan parte hartze-ko aukera eman nahi zaio.

Mankomunitatearen proposamenari baiezkua edo ezezkoa eman behar diote Deba Garaiko Udalek, eta Arrasateko plenoak gaur emango du erantzuna. Udalletxe gehienetan aztertu dute gaia, eta guztiek proposamena begi onez ikusi dute. Arrasateren, Gatzagaren eta Eskoriatzaren erantzunak falta dira bakarrik.

Ordu extremen aurkako eta lana banatzearen aldeko jarrera eskatuko zaio udalbatzari

Arrasateko sei sindikatuk eta hainbat elkartek giza eskubideen gutunaren alde azaltzea eskatuko diote udalbatzari, eta helburu horrekin mozioa aurkeztu dute Udalean.

Mozioan esaten denez, Euskal Komunitate Autonomoan langabeziak gora egin du eta pobrezia hazitua da. Bestalde, urtean 20 milioi ordu extra sartzen direla ere aipatzen da. Egoera horren aurrean plenoari zera eskatzen diote: lana banatzearen alde azaltzea langabezian daudenek lanerako aukera izan dezaten, administrazioan ordu extrak desagertzea eta jubilatze-ko adina 60 urtera jeistea. Azkenik, langabezian egon eta diru sarrera nahikoa ez dutenei dirulaguntza kopu-

ru bat ematea eskatzen da.

Giza eskubideen aldeko gutuna Euskal Legebiltzarrerara ere eramango da, baina parlamentuan azter dadin 30.000 sinadura bildu behar direnez, zeregin horretan hasiko dira laster. Arrasateko lantegi batzuetan dagoeneko hasi dira sinadurak biltzen, eta maiatzaren 17an kalera aterako dira. Uztailaren 1 Irako bilketa bukatuta egongo da, eta ondoren legebiltzarrerara joko dute, gorago aipatutako eskariak jasotzen dituen legea egin dezatela eskatzeko. Ekimenaren bultzatzaileek adierazi bezala, ez da erraza izango legebiltzarrak legea egitea, baina garrantzitsua deritzote ahal den eta jende gehienak atxikimendua adieraztea.

Eskola Politeknikoko ikasle talde bat gose greban

Eskola Politeknikoan ikasten ari diren ikasle batzuk gose greba hasi zuten asteazkenean. Gose grebak zenbat iraungo duen guztiz ziur ez badago ere, hile osoa iraungo duela uste dute antolatzaileek.

Gose grebarako astero hiru txanda egingo dira. Txanda bakoitzean sei edo zazpi ikasleek parte hartuko dute baina astebukaeretan herriko jendea ere gose greba egitera hurbilduko dela espero da.

Gose grebalariak eskolaren ondoan jarri duten karpabatean daude, eta bertan ekin-tza desberdinak ere egingo dituzte. Euskal presoek sakanaketa salatu, eta presoek elkartasuna adieraztea dira gose grebaren helburuak.

Orain arte Eskola Politeknikoan ikasten dutenek ez dute era horretako ekintzarik egin, baina presoek inguruan egin izan dituzte hainbat ekintza eta kontzentrazio.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

HIRU HANDIXEK, ERRAZ ERRAZ

Aizkorri, Anboto eta Gorbea igo zuten hainbat lagunek pasa berri den zubian. Mendizaleenak erraz igo zituzten hiru handixek, baina beste batzuk.... Gainera, erdi galduta ere ibili ziren baina hala ere, ondo pasa ei zuten AEDk antolatutako bidaian.



ERREGINA GAISOA

Corazón de Encina-koek Petri Murillo elkarteko erregina izendatu zuten joan den domekan, baina erregina gaisorik zegoenez bere amak jaso zuen lore sorta. Eskerrak ohorezko damek, Luisa Sanchezek eta Loli Gomezek, osasun hobea duten eta loreak jasotzera hurbildu ziren!

Murtziara kantatzera joan eta Cristina Sanchez toreroarekin tril egin. Zelako zorte ona izan zuen Roberto Madinabetiak! Hori gutxi balitz gainera, *Jesulin de Ullibarri Gamboa* toreroak ere argazkian atera nahi izan zuen. Zelako aurpegi ezaguna Jesulin horrena.



NIK ERE TORERO IZAN NAHI DUT

L.O.G.S.E BATXILERGOAK

Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa.

HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoa:

KLINIKAKO LAGUNTZAILEA (1.400 ordu praktikekin)

Goi mailakoa:

INGURUGIRO-KIMIKA (1.400 ordu praktikekin)



Aurreinskripzioa: maiatzaren 2tik 16ra.

Idazkaritzako ordutegia: 9etatik 13:00etara eta
3etatik 6etara.

E-Mail: sanviatorikastola@ibex.es

[Http://YOSHIMURA.ibex.es/educanet/centrosf.ht](http://YOSHIMURA.ibex.es/educanet/centrosf.ht)

Tel.: 79 04 11 • Faxa: 77 00 73

Harremanetan jartzeko: Idoia Urrutia/Eli Mendia.

ZURE ETORKIZUNA AUKERATU





Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B..... ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

MASAIARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 (Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

REUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎79 72 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎79 44 22

Txinatarrak

Dragoien herritik dragoiaren herrira

Jende guztiak izan zuen esatekorik txinatar batzuk herrian jatetxea ireki behar zutenaren zurrumurrua zabaldu zenean. Hika mika ugari entzun zen orduan, baina akaso errepikatuena

jatetxearen etorkizun urriarena izan zen. Herrian jatetxeak soberan daudela edota janari txinatarrak euskaldunon ohitura gastronomikoekin zerikusirik ez duela argumentatuz, arrakas-

ta gutxi iragarri zion askok jatetxeari. Ordutik hona, euri asko egin du eta dagoeneko, laster lau urte beteko ditu txinatarrek herrian montatutako negozioak.

Zhong Zhao Li, *La Gran Muralla* jatetxe txinatarren kamareroa da, baina denek Fernando bezala ezagutzen dute. Bere izena ahozkatzeko zailtasunak izenez aldatzera bultzatu zuen 15 urte zituela, Txinatik Madrilera etorri zenean. Mutil hiz-

tuna da, bere gaztelera oso fina ez bada ere. Igartzen da, bera dela jatetxeko "erlazio publikoen arduraduna", beste guztiek gaztelera berba apur batzuk besterik ez dituzte egiten eta. Fernandok orain 26 urte ditu. Familiarekin batera daraman negozioak ondo baino hobeto funtzionatzen due-

nez, bere bizitza Arrasaten egitea espero du.

Orain lau urte zabaldu zuten jatetxea eta denbora honetan, bere tokia bilatu du hostalaritzan. Makailu tortila eta txuletatik aparte noizean behin gauza ezberdinak dartzera animatzen direnekin, eta bereziki janari txinatarra

gustoko dutenekin, bezero kopuru majoa lortu dute *La Gran Muralla* jatetxeoek.

LA GRAN MURALLA ABIAPUNTU

Txinatarra eta jatetxea erraz lotzen dira. Euren jaioterri-tik irten diren txinatarrek lan-



Lau urte dela zabaldu zen jatetxe txinatarra Arrasaten.

tegietan ikustea ez da oso normala, euren negozio propioa antolatzeko joera izaten dute eta. Fernandoren eta bere familiaren kasuan ere, horrela izan da. Txinako hegoaldean kokatuta dagoen Zhe Zie hiriburutik irten ziren orain dela hamaika urte. Zuzenean Madrilen lur hartu, eta *La Gran Muralla* izeneko jate-txe katean hasi ziren lanean. Kate hau, txinatarren negozio-rik ezagunena da gaur egun, edozein hiriburu edo herritan egin daiteke topo horrelako jate-txe batekin.


Li familiak urte batzuk egin zituen Madrilen eta garai haiek gogoratzean herrimina sartzen zaio Fernandori. Berak dioenez, "madrildarra sentitzen naiz, oso txiki heldu nintzelako Madriler. Lagun asko utzi dut han eta ahal dudanean joaten naiz

bisita egitera".

Arrasatera etortzeko erabakia kateko nagusiek hartu zuten, baina Litarrek oso pozik daude leku aldaketarekin. Hilabete batzuk kostatu zitzaizen jate-txea martxan jartzea. Udaletxean baimen denak lortu, pisu bat alokairuan hartu eta traslado guztia euren egin zuten. Orain arte egindako lanak, denak bizi-tzeko adina ematen die eta herriko giroan gustora sentitzen dira. Fernandok dioenez, "urte asko geratuko gara hemen. Ezer ez bada gertatzen bizi osoa".

ARRASATEKO BIZITZA

Txinako bizitzaz ez du oroitzen garbirik Fernandok. Txikitari Madriler eta handik Arrasatera. Madrildik hona aldaketa handia dago




Platerren konbinazio ezezagunak eta jate-txe txinatarren look-ak erakartzen du j...

Jate-txe txinatarrek mendebaldeko urbanizazioetan integratu dira eta hiri bat ez zen hiri izango txinorik gabe. Arrasaten ere, paisaia urbanoaren zati bihurtu da La Gran Muralla, akaso amerikarren McDonald-a baino lehenago iritsi zirelako.

Txinatar saltsak gogorak izan daitezke urdailerako baina ez poltsikorako. Menu garestienak ez du mila pezeta baino gehiago balio eta plater garestiena ez da 1.500 pezetatik pasatzen.

baina hemengo giroa asko gustatu zaie Litarrei. Fernandok kontatzen duenez, bakoitzak bere bizitza egiten du, nahiz eta etxe berean bizi. "Oso gustora gaude Arrasaten. Bizimodua lasaia da eta gainera jende jatorra dago. Gurekin ondo portatu dira eta guztiz integratuta sentitzen gara". Gauerdiari jate-txe-ko atea isten dituztenean, Fernandori bere lagunekin buelta bat ematea gustatzen zaio. "Jate-txe baten lan egiteak jende asko ezagutzeko aukera ematen du. Hona etorri ginenetik lagun asko egin dut eta horiekin tragu batzuk hartzea joatea gustatzen zait". Fernando hostalaritza

mundurako jaioa dela ematen du. Aitortzen duenez, ez zaio kirola larregi gustatzen eta ez du afizio berezirik. Berari benetan gustatzen zaiona lagunak egitea da "bizitza-ko gaien gainean berba egiteko edo buelta bat emateko". Horregatik dio berea jate-txean lan egitea dela, "denok sukaldean lagundu behar badugu noizean behin, niri benetan gustatzen zaidana jendearekin harremana izatea da. Gainera, gaztelera praktikatzeko ezin hobeto etortzen zait. Txinerarekin ez du zer ikusirik eta oraindik zaila egiten zait berba egitea". Guretzat txinera ikastea bezain zaila izan behar nahi



Saltsa gazi-goza

Tiburoi aleten sopatik hasi eta ostren saltsakin prestatutako letxuga hostoak eskatu daitezke jatetxe txinatarrean. Janariari laguntzeko ogi txinatarra, pastelak baino gozoago, eta edateko lagarto likorea. Plateren konbinazio ezezagunak eta jatetxe txinatarren look-ak erakartzen du normalean jendea, gero menua aukeratzerakoan kontserbadoreagoa bada ere. Jatetxe txinatarren arrakastaren formula, janari-prezioaren arteko erlazioan eta exotikotasunak duen erakartasunean oinarritzen dela esan daiteke. Txinatar saltsak gogorak izan daitezke urdailerako baina ez poltsikorako. Menu garestienak ez du mila pezeta baino gehiago balio eta plater garestiena ez da 1.500 pezetatik pasatzen. Ogitarteko baten prezioan, arrozarekin edo barazkiekin prestatutako plater bat jan daiteke, eta ogitartekoak barra barra jaten diren herri honetan, deigarria gertatzen da eskaintza hau noizean behin ohituraz aldatzeko. Hala ere, Fernandok argi dauka “bakoitzak bere gustuak dituela eta janari txinatarra ez zaio mundu guztiari gustatzen”.

Betiko hiru delizietako arroza eta udaberriko rollotxo ospetsuak alde batera utzita, jendeak beste plater batzuk eskatzea nahiago du. “Arroza edozein lurraldeko etxeetan prestatzen den janaria da. Batzuk modu batera, beste batzuk bestera baina edozeinek daki arroza prestatzen” esaten du Fernandok. “Jendea zapore ezberdinak dastatzera etortzen da jatetxera”. Akaso, janari txinatarren zapore berezi hori da bezeroak bilatzen dutena. Jatetxeko platerrik originalena Pekin Ahatea da, etxearen espezialitatea. Jende askok eskatzen du plater hau, baina benetako arrakasta dutenak ganbak edo tallarinak plantxa erara dira.

Litarrenetxean janari txinatarra prestatzen da baina hemen go sukaldaritza ere ezagutzen dute. Ezagutu baino gehiago, Fernandok oso gustoko duela aitortzen du, beretzat solomillo on bat jatea baino hobegorrik ez dago eta.



eta nahi ez, beste guztiek ama hizkuntza erabiltzen dute eta euren artean. Hala ere, oso gutxitan bueltatu dira euren jatorrizko hirira. Fernandok hilabete inguruko oporrak hartzen ditu urtero eta orduan ere, “nahiago dut beste leku batzuetara joatea”.

BENETAKO JANARI TXINATARRA

Jatetxea 90 lagunendako dago prestatuta. Egunero zortzi ordu lan egiten dute, baina gauak dira lanpetuenak. “Jendeak nahiago du afaltzera etortzea bazkaltzera baino, lan gehien gauetan eta batez ere astebukaeratan izaten

dugu”. Jatetxeko zerbitzuaz harro agertzen dira denak. “Sukaldari ona dugu jatetxean eta Txinako benetako janaria eskaintzen dugu”. Urte hauetan bezeroen konfiantza irabazi dute eta “bezero finkoak izatea lortu dugu”.

Euren ohiturak bizibide bihurtu dituzte Txinatik urrun. Jatetxe txinatarrek mende-baldeko urbanizazioetan integratu dira eta hiri bat ez zen hiri izango txinorik gabe. Arrasaten ere, paisaia urbanoaren zati bihurtu da *La Gran Muralla*, akaso amerikarren McDonalds-a baino lehenago iritsi zirelako. ■

Marian Porcel

Bizi bizikletan!

LIZARRALDE KIROLAK bizikleta denda berria Arrasaten



ASIER GUENETXEA
Txirrindulari ohia

“Urte urte teknologia aurrera doa bizikleta material guztietan, arropatan, aerodinamikan...lehen pentsatu ere ezingo zena”



ALBERTO IÑURRATEGI
Mendizalea

“Entrenamendu erreminta bezala bizikleta sartzen dugu, gehienbat aldatzeagatik... errepidekoa ondo akoplatzen da gure erritmora”.



JOXE ARANZABAL
Bizikleta zalea

“Hamabi urte bizikletan ibiltzen naizela. Mimo larregirik gabe noizbehinka olioztatu eta hor ibiltzen naiz bizikletarekin”.



SEBASTIAN LIZASO
Bertsolari-bizikleta zalea

“Txirrindularitza beti bizi izan dut gertutik, nahiz eta gutxitan ibili. Mendikoa nahiago, uste dut seguruagoa dela.”



EUKENI OLABARRIETA
Sendagilea eta LURRATSekoa

“Kirola-Osasuna filosofiaren aldekoa naiz, Bizikleta ona da bihotza eta artikulazioen flexibilitatea mantentzeko.



AITOR GARMENDIA
Txirrindulari profesionala

“Material ona izatea gogoak edukitzea bezain inportantea da...baina bizikleta astean behin garbitu ere garbitu behar da.”



ENRIKE ALONSO
Arrasateko txirrindulari ohia

“Nahiz eta aurrerakuntza teknologikoak izan, txirrindularia zaintzen ez bada eta ondo prestatzen ez bada, ez dago zer egiterik”.



Mikel Lizarralde oñatiarrak gusto handiz lagunduko zaituzte Foruen Plazako denda berrian.

Bizikleta denda berri bat zabaldu du Arrasaten Mikel Lizarralde, txirrindulari izandakoak, baina oraindik bizikleta munduan murgilduta bizi denak.

— Oñatin zabaldu zuen orain 12 urte lehen bizikleta denda, gaur egun txirrindulari gazte askoren txoko bilakatua. Arrasateko bezeroei Oñatirako joanetorriak ekiditzeko Musakolan zabaldu zuen Lizarralde Kirolak denda. Hala ere, Musakolakoa txiki geratu eta San Andres auzoan ireki du denda, apirilaren 29an. Inauguraketan bizikletaren munduko pertsonai ezagun asko bildu zen, San Andres auzoko Garro Generala kalean.

LIZARRALDE KIROLAK dendak, toki aproposan egoteaz gain, bestelako prestazio batzuk ere baditu. Besteak beste,

konponketa tailerra eta bizikletaren garbiketarako zerbitzu berezia. Guztia bizikletaren mantenimenduan pentsatuz. Bizikleta eta zu, eta zuretako delako **LIZARRALDE KIROLAK**en neurriak hartu eta zure koardoa diseinatuko dizute.

BIZIKLETAN BIRAK AZKAR DOAZ

Gero eta aurrerakuntza gehiago dago produktuetan, pisu gutxikoak (karbono edo titaniozkoak), suspensio bikoitzekoak (dorsalgia ebitatzeko), material arinak, gurpil bereziak, eta zer esanik ez arropei buruz, gehiago neskendako arropatan. Aukera zabal, modelo berriekin.

NAHI BESTE KONPLEMENTU


Lehen mendiko bizikleta asko saltzen bazen ere, moda lasaitu da eta gaur egun, errepidekoa eta mountain bike-a parekatu-

rik daude.

Dena dela, ezin da konparatu azalera handiko almagazten eskaintzen dutena eta bizikletan espezializatutako denda baten daukazuna. Kasko asko eta politak daude, pulstometroak entrenatu nahi dutenendako, izan ere kirolari asko dira beraien prestakuntzan bizikleta sartzen dutenak.

Eguraldi onak ere jende asko animatzen du bizikletan ibiltzera, kirola aisialdian gozatuz. Amateur, gazte, profesional zein noizean behineko txirrindulariek behar duten guztia bertan topatu dezakete.

Mikelek berak ere bere denbora librean bizikleta gainean pasatzen du, eta ahal duen guztietan une bat topatzen du lasterketak prestatu edo eta horietara irtetzeko. Gaztetxoak nola ibiltzen diren ikustea gustatzen zaio, beraiekin egotea. Esan daiteke Mikel bizi, bizikletan bizi dela.



LIZARRALDE

Foruen Plaza, 1 • ARRASATE • Tel.: 79 91 47

KIROLAK

Futbol entrenatzailea

UNAI DIEZ

“Nire helburua ez da goi mailako entrenatzaile izatea”

— **Noiztik entrenatzaile Mondran?**

— Ibai eta biok hiru urte dela hasi ginen lehen mailako kadeteekin. Iaz berriz nik bakarrik hartu nuen taldearen ardura eta gainera bigarren bueltan jubenilekin ere ibili nintzen.

— **Gazteak entrenatzea gogorragoa da?**

— Gazteak eramaten jakin behar da eta baita gurasoak ere. Zaila da guztiak pozik uztea. Denek jokatzen badute, taldea ez da sendotzen eta aukeraketa eginez gero, haserreak egoten dira.

— **Nolako harrobia dago Arrasaten?**


— Ona baina askotan ez da ondo aprobetxatzen. Dena dela, orain goi taldean jokalaririk denak herrikoak direla kontuan hartuta, gazteek gora igotzeko aukera gehiago dute eta horrek motibatzen du balio du.

— **Anekdotarik?**

— Ondarrun Soraluzeko epaile gormutu batek epaitu gintuen. Partiduan jokaldi polemiko bat izan zen eta bankiloan zegoen jokalaririk bati txartel gorria atera zion *puta seme* deitzeagatik. Epailea zelaiaren beste aldean zegoen eta gormutua izanda ezinezkoa da hortaz konturatzea. Xelebrea izan zen. Gainera partidua hasieran gurekin etxeratuko zela esan zigun, baina gertatutakoa gertatuta hantxe utzi genuen.

— **Gazte batek kirol bakkarra egitea ona da?**

— Nire ustez gazteek bategi taldeko kirola egin behar ko lukete eta bestetik indibiduala baina biak konpatiblea izanda. Hori egokiena izango litzateke gaztearen ezagutza guztiak lantzeko.




SASKIBALOA Urbina Maltzaga larri eta estu



Urbina Maltzagak Pinturas Lepanto taldearen kontra bigarren play offeko bi partiduko jokatu zituen eta German Mongeren mutilek biak galdu zituzten. Hirugarren partidua Iturripen jokatuko dute gaur ostirala gaueko 9etan. Urbina Maltzagak irabazten badu, laugarrena domekan arratsaldeko 6etan jokatuko litzateke Iturripen. Galduz gero, bigarren mailako talde bihurtuko da. Arrasateko saskibaloitaldeak beraz, hil ala biziko partidua jokatuko du ostiralean eta jarraitzaile guztien babesa behar du euren helburuak bete ahal izateko.

ESKUBALOA Arrasate Lezoraino



Eskubaloitaldeak Allerru izango du arerio domekan Lezon. Partidua eguerdiko 12etan jokatuko da. Arrasatearrek gaur arte Kopako lau neurketa irabazi dituzte eta hiru galdu. Allerruren kontra Iturripen 22 eta 23 galdu zuen Arrasatek. Domekan berriz, errebantxa hartzeko aukera izango dute.

FUTBOLA Emakumeak Atxabalpen




Mondrako emakumeek berriro etxean jokatuko dute Bilboren kontra. Norgehiagoka zapatuan jokatuko da arratsaldeko 6etan. Arrasatearrek lehen partiduan ez zuten arazorik izan gol bateko aldeaz Bilbo

gainditzeko. Hori kontuan hartuta pentsa daiteke zapatuan puntuak etxean geratuko direla. Hurrengo partidua ere etxean jokatuko du Mondrak Amorebietaren kontra eta kopako azkena kanpoan Lagun Onakén aurrean. Mondrak geratzen diren hiru partiduko irabaziko balitu, finalean izango litzateke. Bi irabazi eta bestea berdinez gero, aukera asko izango luke.

Preferente mailako Mondra eta Orioko elkarren kontra arituko dira zapatuan Orion arratsaldeko 5etan. Mondra azken boladan ratxa onean dago eta horren erakusgarri jarraian irabazi dituen hiru partiduko. Gainera kostaldeko taldea azken sailkatua da 24 punturekin. Lehen bueltan Jesus Mari Barrutiabengoaren mutilek 3 eta 1 irabazi zuten. Une honetan Mondra 4. tokian dago 61 punturekin. Zapatuko jokatuta beste bi partiduko faltako dira denboraldia bukatzeko.

PILOTA Benjaminen txanda zapatuan



Benjaminen Antzuolako pilotariak izango dituzte nor baino nor zapatuan Iturripen arratsaldeko 4etan. San Andres txapelketari dagokionez, esan behar joan zen asteburuan finalak jokatuko zirela. Aurrebenjaminetan Arregi izan zen txapeladuna; benjamin B mailan Jimenez III, A mailan Rodriguez II; alebin Bn Jimenez II, A mailan Agirre I; infantil Bn Uribarren eta An Dominguez II. Orain San Juan txapelketarekin hasi dira Arrasateko pilotari gazteak.

Ipar Amerikako mendirik altuena Roman, Josu eta Mikelen zain

Alaskako McKinley mendien tontorrera heltzea du helburu Mikel Aranak, Josu Pereda eta Roman Ezeizak maiatzaren 19an hasiko duten espedizioak. Arrasate, Aramaio eta Eskoriatzako hiru mendizale hauek, errespeto handiz baina beldur barik hasiko dute Alaskako mendi altuenera eta hotzenera eramango dieten bidaia. McKinleyra joateko ideia Romanek izan zuen. Ekainean betidanik buruan zuen ametsa gauzatu ahal izateko informazioa biltzen hasi zen. Hasieran bakarrik joateko planak egin zituen, baina Estatu Batuetako gobernuak Alaskako parke natural horrek izan ditzakeen arriskuengatik bakarrik joaten ez ziola uzten jakitean beste lagun batzuren bila hasi zen. Josu Peredaren konpainia lortzea ez zitzaion asko kostatu eta duela hilabete, Mikel gehitu zitzaion abenturara.

MENDIAREN EZAUGARRIAK

McKinley mendiak 6.200 metro ditu eta batez ere egiten duen hotza aipatu behar. Garai honetan ere 35 gradu zero azpitik egon daitezke. Gailurraren inguruan bestalde, 800 metroko eta 50-55 graduko desnibealeko horma bat dago, West Buttress izenekoa eta hori igo beharko dute tontorrera heltzeko. Itxuraz mendi zaila ez eman arren, glaziar batean dagoenez arretaz ibili beharko dute edozein tokitan pitzadurak egon daitezkeelako. Bidaia gehienez 25 egunetan egin nahi dute. 19an irten, Alaskako hiriburura Juneaura heldu, eta hortik 400 kilometro autoz Talkeetnara. Talkeetnan aeroplanoa hartu eta Kahiltzako gla-

McKinley espedizioa

Alaskako McKinley mendien gailurre-ra heltzen ahaleginduko diren hiru mendizaleak gogo handiarekin baina horrelako mendi batek behar duen errespetoaz hasiko dute abentura maiatzaren 19an. Hirurei zorte onena!



Roman Ezeiza
39 urteko eskoriatzarra.
Mendiak: Akonkagua, Cho-oyu eta Alpeak.



Josu Pereda
30 urteko arrasatearra.
Mendiak: Huascaran, Alpamaio, Tocklaraju eta Alpeak.



Mikel Arana
31 urteko aramaioarra.
Mendiak: Huascaran, Alpamaio, Inimany eta Alpeak.

ziarrera zuzenean. Glaziarretik oinarritzko kanpamendura hiru eguneko bidaia izango dute porteatzaileen laguntza barik. Bakoitzak 60 kiloko pisua eraman beharko du motxilan eta trineoetan. Kanpamendu basean ez dira bakarrik egongo, izan ere bertan rangers eta mediku zerbitzuak daude. "Gure asmoa oinarritzotik lehen kanpamendura ahalik eta azkarren heltzea da, denda jarri eta aklimatatzu joateko. Ondo bageunde, gaua bertan

pasa eta tontorrerako bidean jarriko ginasteke. Eguraldiak laguntzen badu hiru egunetan hel gaitzke gailurrera". Hiru mendizaleen aurreikuspenak betetzen badira, azken egunetan Alaskako inguru zoragarriak gozatzeko asmoa dute.

ERAMAN BEHARREKOA

Horrelako espedizio baten aurrean motxila prestatzea da gauzarik garrantzitsuenarikoa. Glaziarra zeharkatzeko sokak eraman beharko dituzte. Pio-

leta, kranpoiak, arnesak eta yumarra (dauden soka fijoak igoteko) behar beharrezkoak dira. Horrez gain bi makila eta trabesiako skien ordez bi rakeeta, elurretan erosoago ibiltzeko. Arropa egokia, janaria eta liburu pare bat ere ezin ahaztu. Janaria berotzeko propanoko sukaldea eraman beharrean, egiten duen hotzagatik MRS Keroseno Inyeccion sistemaz joango dira, hirurentzat berria.

Bidaia egitea mendizale bakoitzari 550.000 pezeta kostatu zaio baina babesle batzuren laguntza ere izango dute. Ecuador bidaiak, Nacex, Instituto Optico, Arrasate Kirolak, Oain argazkiak eta Forum Sport. Romani bestalde Eskoriatzako Udalak ere eman dio laguntza. Lortutako diruarekin gastu guztia estali ez badute ere, lagungarria izan dela diote. McKinleyra joateko hiru lagun hauek ez dute inolako txertorik hartu. Aldi berean aipatu behar da nazioarteko aseguroarekin nahikoa dutela. Himalayara joateko espedizio aseguroa atera beharra askoz ere garestiagoa izaten da.

Mikel, Roman eta Josu irrikan daude bidaia hasteko, baina garbi dute ez daudela gailurra igotzeko itsututa. "Gailurra igotzera goaz baina arazoak ikusten baditugu lotsa barik buelta emateko gertu gaude. Helburua mendian gozatea da nahiz eta horretarako sufritu behar". Abentura eta arrisku puntua ere gustatzen zaien mendizale hauek senitartekoen aldetik babes handirik ez dute aurkitu, baina eurek euren burua ez dute zorrotz hartzen, abenturazale eta mendid maitaletzat baizik.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Fosforos	7	4	2	1	35	20	10
Sortu informatika	7	4	1	2	32	34	9
MSM Ing Integ	7	4	1	2	33	30	9
Aurrera Bolie	7	4	1	2	32	24	9
Abinagraus	7	4	0	3	25	21	8
Txeyenex	7	2	1	4	31	35	5
Adelaida Aldibi	7	1	1	5	16	35	3
Pepelus	7	1	1	5	18	29	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	7	6	0	1	41	23	12
Insert Coin	7	5	0	2	31	26	10
Orlando Piratas	7	3	2	2	40	20	8
AC Surcos	7	4	0	2	29	34	8
Koka Junior	7	3	1	3	28	28	7
Okoretegi	7	3	0	4	26	30	6
Totem	7	2	1	4	15	28	5
Arrogoi Taberna	7	0	0	7	8	30	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	7	7	0	0	59	20	14
Galartza Kont	7	5	0	2	27	13	10
Diego Antonio	7	4	1	2	40	31	9
Sokoakoak	7	4	1	2	41	36	9
Me la Pela	7	3	0	4	24	30	6
Lorategi	7	2	0	5	31	49	4
Onaniereng	7	2	0	5	25	46	4
Los Innombrables	7	0	0	7	20	44	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Nuevo taberna	7	6	1	0	40	18	13
Cerveceria Leintz	7	4	1	2	34	23	9
KK Jaurilaritzari	7	3	2	2	25	26	8
Betrayer	7	4	1	2	26	27	8
Ke Oxtias	7	3	0	4	26	23	6
Bedarreta Taberna	7	2	1	4	21	27	5
Jotakabau	7	0	3	4	23	30	3
Ojo avisore	7	0	2	5	19	40	2

Hurrengo partiduak

3. fasea Lehen Ihardunaldia

Maiatzak 10, Zapatua

Zaldibar

10.50	Nuevo taberna - Sokoakoak
11.00	Galartza Kont. - KK Jaurilaritzari
12.00	Irati STS - AC Surcos
16.00	Sortu Informatika - Orlando Piratas
17.00	Cerveceria Leintz - MSM Ing. Int.
18.00	Fosforos - Betrayer

Maiatzak 11, Domeka

Zaldibar

11.00	Insert Coin - Diego antonio
12.00	Naranja Mekanika - Aurrera Bolie

3. faseko taldeak

A taldea

Fosforos
Insert coin
Diego Antonio
Betrayer

B taldea

Naranja Mekanika
Galartza Kontenedoreak
KK Jaurilaritzari
Aurrera Bolie

D taldea

Irati STS
Cerveceria leintz
MSM Ingenieria Integral
AC Surcos

E Taldea

Nuevo Taberna
Sortu informatika
Orlando Piratas
Sokoakoak



Emaitzak

A taldea

Sortu informatika 6 - Txeyenex 8
MSM Ing. Int. 6 - Adelaida Aldibi 2
Pepelus 0 - Abinagraus 1
Aurrera Bolie 6 - Fosforos 5

B taldea

Naranja Mek. 10 - Okoretegi 6
Arrogoi Taberna 0 - Totem 1
Insert Coin 6 - Koka Juniors 2
AC Surcos 3 - Orlando Piratas 14

D taldea

Irati STS 8 - Lorategi 5
Diego Antonio 5 - Onaniereng 10
Los Innombr. 0 - Galartza Kont 1
Me la Pela 1 - Sokoakoak 5

E taldea

Betrayer 3 - Cerveceria Leintz 3
Nuevo Taberna 1 - Jotakabau 0
Ojo Avisore 0 - KK Jaurilaritzari 1

Uribe auzoko txapelketa

HURRENGO PARTIDUAK

7. ihardunaldia

Maiatzak 10. Larunbata

Iturripe A

9.00	DKB - Doble Cero
10.00	SGK - Decima Viktima
11.00	Jako al Rey - DZV
12.00	Bortxitxak - Ke Oxtias
13.00	Ojo avisore - No hay mus
14.00	Viboras - Germdis de B
15.00	Malokai - AT Barbate
16.00	Astonia - Rotor de Bolbogrado
17.00	Ganbelas - Auri
18.00	Babajana - Niva Vin
19.00	Hirei - Sobredosis de Txeria
20.00	Mendizabal Okin - Makai

Iturripe B

13.00	Lautherbrunen - The Pepe
14.00	Elisabeth - Mucho Morro
15.00	Balon rojo - Ford publicop
16.00	666 - Komando Alpagat
17.00	La mosca Gao - Borrock Roll P
18.00	Gallinero - Ale alee
19.00	Pajax De Ams - Amueb Zarautz
20.00	Los Innombrables - Equis BTR


Maiatzak 11, Igandea

Iturripe A

9.00	Alai Gozokiak - Nuevo taberna
10.00	Sambuka Porretas - Flujos Secos
11.00	Manchester Fumaited - Sartuixokfuerte
12.00	Munar fool - Argi Plastic
13.00	Los Invalidos - Ainarexia

97-98 ikasturtea

ARRASATE-ARETXABALETA INSTITUTUA



DBH- ESO

Derrig. Bigarren Hezkuntza (1., 2. eta 3.)
BBB- BUP. 2.maila
IEE- REM. 1. zikloa (2.maila)
IEE- REM 2. zikloa (2.maila)
(Batxilergo Tekniko Industriala)

Non

Arrasateko DBH ikastetxea.
Arrasateko Institutua.
Arrasate/Aretxabaleta Institutua

Aretxabaletako Institutua

HEZIKETA ZIKLOAK

Non

Erdi Mailako Hezkuntza Zikloa

- AUTOEN ELEKTROMEKANIKA
(2 ikasturte + praktikak)
- ERIZAINZA LAGUNTZAILEA
(ikasturte 1 + praktikak)

Aretxabaletako Institutua

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIKOA (16-18)
- ZIENTIFIKOA (16-18)
- HUMANISTIKOA (16-18)

Non

Arrasateko Institutua

Goi Mailako Modulua

- SISTEMA AUTOMATIKO ETA PROGRAMAGARRIA
(ikasturte 1 + praktikak)

Aretxabaletako Institutua

LHII Automozioa

Autoen Mekanika eta Elektrizitatea
(2. eta 3.maila)

Non

Aretxabaletako Institutua

Arreta pertsonalizatua, ikasle zein gurasoekin bilerak.

Aurreinskripzio epea: maiatzaren 2tik 16ra arte

**Aukera
ezazu
Eskola
Publikoa!**

**Aretxabaletako
Institutua**



Etxebarri Auzoa z/g.
Tel.: 79 79 00
Faxa: 77 09 55
ARETXABALETA



Sta. Teresa kalea, 25
Tel.: 79 44 47
Faxa: 79 44 37
ARRASATE

JON IZAGIRRE (MEDIKU PSIKIATRA)

“Gazteengan gora egin du”

Datorren asteazkenean ateak irekiko ditu Aita Menni ospitaleak gazteendako prestatu duen unitate bereziak. Unitate horretan gaisotasun psikiatrikoren bat duten gazteek jasoko dute tratamendua.

Jon Izagirre mediku psikiatra izango da unitate horretako arduradun nagusia. Izagirrek esan bezala, konponketak egin eta gero etxea prest dago lehenengo gaisoak jasotzeko, eta lan taldea ere gertu dago gazte horiei laguntza emateko.

– Gasteiztarra zara, baina Ingalaterran ikasi duzu psikiatria

– Bai Ingalaterran jaso dut prestakuntza. Lehenengo Manchesterren izan nintzen, gero Londonen eta azkenik Cambrigd-en. Guztira zazpi urtez egon naiz Ingalaterran psikiatria ikasi eta ondoren

lanean. Gazteendako psikiatrian Ingalaterra aurretik dagoelako erabaki nuen bertara joatea.


– Aita Menni ospitalaren parean dagoen etxean gazteendako unitatea zabalduko duzue

– Bereziki 12 eta 16 urte arteko gazteendako izango denez, unitatea ospitaletik aparte zabaltzea komeni zela ikusi genuen. Ospitalean batez ere jende heldua dago, normalean gaisotasun kronikoa duena, eta familiarendako eta gaisoarendako gogorra izaten da horrelako toki batean ingresatzea. Horregatik, beharrezko ikusten genuen gazteendako unitatea ospitaletik kan-

po kokatzea. Unitatean, gainera, tratamendu sakona baina motza eskainiko zaie, hau da, ingresatzen dutenak batzuek beste hiru hilabetez egongo dira bertan. Helburua, ahal den eta lasterren gaztea betiko girora bueltatzea da. Gero, etxetik gertu dagoen zentroan egingo zaio jarraipena baina Deba Garai-koei, esaterako, guk geuk egingo diegu.

– Zelan geratu da unitatea?

– Txukun. Etxea txikia da, baina etxe giroa du eta horrek gaisoari lagundu egingo



“Beharrezko ikusten genuen gazteendako unitatea Aita Menni ospitaletik kanpo kokatzea”

e gaisotasun psikiatrikoek”

dio. Oraingoz tratamendu beharrean dauden bost gaztek izango dute ingresatzeko aukera, baina aurrera begira unitatea handituko dugu. Azken urteetan egin duen moduan, aurrerantzean ere Aita Menni ospitalea haziz joango da. Laster hiru solairuko edifizio berri bat eraikiko da, eta erakin horretan gazteendako unitatea egongo da. Era horretan, 16 gaztek izango dute bertan ingresatzeko aukera.

- Euskal Autonomi Elkartean ez dago era horretako unitaterik.

- Horrela da. EAEn ez dago bereziki gazteei zuzendutako unitaterik, eta estatuan ere gutxi batzuk ezagutzen dira.

- Zeintzuk osatuko duzue lan taldea?

- Ingresatzeko aukera izango dutenen kopurua kontuan izanik, lan taldea nahikoa dela

esango nuke. Erizaintza saillekoek, psikologo klinikoak, langile sozialak, aisialdirako monitoreak, pedagogo batek eta nik neuk osatuko dugu lan taldea besteak beste.

- Zein gaisotasun psikiatriko izaten dituzte gazteek?

- Depresioak, gaisotasun psikotikoak, anorexia nerbio-soa... Orokorrean, gazteengan gora egin dute gaisotasun psikiatrikoek. Gaisotasun horiek faktore desberdinek eragiten dituzte: batzutan genetikoek, eta beste batzutan sozialek nahiz familiarrek. Gaztaroan

aldaketak gertatzen dira: gaztea gehiago pentsatzen hasten da, kritikagoa da, helburu berriei egin behar zaie aurre, konpetentzia handiagoa da...

- Azkenaldian asko hitz egiten da anorexiari buruz.

- Gaisotasun horrek gora egin du azkenaldian, eta tratamendua zaila da, anorexiak heriotza ekar dezake eta. Gaisotasun hori dutenei jarraipen zorrotza egin behar zaie. Gure unitatea gertu dago patologia hori duten gaisoak jasotzeko, baina ez da anorexia dutenendako bakarrik izango.


- Unitatea gertu dago, baina zerbait geratzen zaizue lotzeko?

- Osakidetzarekin harremanetan gaude Gizarte Segurantzza bidez ingresatzeko aukera egon dadin. Osakidetzarekin akordioa lortzen badugu, batez ere hiru probintzietako gazteek izango dute unitatean sartzeko aukera, baina bestela estatuko edozeinendako egongo da zabalik.

- Urtarrilean ere gazteendako kontsulta ireki zuen ospitaleak Uribe Auzoan.

- Hala da, baina kanpo kontsultetarako dago. Umei eta gazteei zuzenduta dago eta arratsaldetan egoten da zabalik. Horrelako zerbitzuak Gasteizen edo Donostian badaude, baina inguruan bizi direnei urrun geratzen zaizkie. Deba Garaiko ikastetxei zerbitzuaren berri eman genien, eta ondo doala esan daiteke.

“Euskal Autonomi Elkartean ez dago bereziki gazteei zuzendutako unitaterik, eta estatuan ere gutxi batzuk ezagutzen dira”

 MIKEL LASA, S.A.
aseguru artekaritza

ASEGURU OROKORREN AGENTZIA

Zure familiaren segurtasuna, aurpegia erakusten ez dizun norbaiten esku utziko zenuke?

EZ ERABAKI ZURE ETORKIZUNA TELEFONOZ

BANKINER
AGENTEA

FINANTZA PRODUKTUAK

Inbertsio fondoak, Altxor Letrak, Epe jakinerako ezarpenak, Bonoak, Obligazioak eta abar.

HIPOTEKA MAILEGUAK

Maalako Errabala, 33 behea • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 79 69 00 Faxa: (943) 77 10 74



Ahots berri ugari sartu da azkenaldian Goikobalun. Hor duzue talde osoa Ciezán bertan.

Goikobaluk lehenengo saria Murtzian

Goikobalu abesbatzak Murtziako Cieza herrian pasa zuen joan den asteburua, bertako abesbatza lehiaketan parte hartzen. Iñaki Maidaganek Goikobaluko zuzendariak esan duenez, "lehia gogorra izan zen, maila oneko abesbatzak zeuden eta, baina lehenengo saria eskuratzea lortu genuen".

Aita Donostiaren *Aran-Lore*, Ariel Ramirezen *Alfoncina y el Mar*, J. Guridiren *Akerra ikusi degu* eta Marcelo Beltráñen *Canto de Ausencia*, azken hau derrigorrezkoa, izan ziren Arrasateko abesbatzak kantatu zituen obrak. Lan horretan erakutsi zuten mailagatik trofeoa eta 400.000

pta.ko diru-saria etxeratu zuten.

Esan behar da orain dela gutxi ahots berriak sartu direla Goikobalun, baina frogatuta geratu denez hori ez da oztopo izan taldeak duen mailari eusteko. Maidaganek adierazi duenez, bazuen horren beldurra, baina taldeak Ciezán

lau kantuak eskeini ondoren, argi izan ei zuen sariren bat irabaziko zutela.

Iñaki Maidagan 1995eko abenduan korua zuzentzen hasi zenetik, hau izan da eskuratu duten lehen saria. Horrek pozez betetzen duela eta lanean gogor jarraitzeko gogoia handitzen diola adierazi du.

Maiatza Dantzan Arrasatera

Bihar iluntzean dantza garaikidea *Lanónima Imperialekin*

Foru Aldundiko Kultura sailak orain 14 urtetik antolatzen duen Maiatza Dantzan jardunaldiak abian daude. Beste urte batzuetan bezala, Donostiara ezezik, Gipuzkoako herrietaraino ere helduko dira dantza emanaldiak. Bihar adibidez, Lanónima Imperial dantza talde kataluniarraren bisita jasoko da Amaia antzokian. Juan Carlos Garcia koreografoaren *Los Gestos del camino*

eta *Eco de silencio* obrak eskeiniko dituzte. Lehenengo obran bidaia da abiapuntu, bidaia, elkarteak eta urruntzeak topo egin duten toki moduan interpretaturik. Bigarrenak berriz, tragedian murgilduta dagoen gizon etsibatzen negarra dakar. Koreografia honek hiru sari jaso zituen Tel-Aviveko II. International Suzanne Dellal Competition lehiaketan: Koreografia, dantza one-

naren asaria eta baita publikoarena ere.

DANTZA GARAİKIDEARI BULTZADA

Jon Garaik kultura teknikariak onartzen duenez, "Arrasaten egon diren dantza garaikideko emanaldiak ez dira masiboak izan, berez dantza garaikidea ez delako masibo". Hala ere, dantza estilo hau bultzatu beharra azpimarratzen du Garaik. Azken

lau urteetan Maiatza Dantzan jardunaldietako hainbat konpainia hurbildu da hona: Diez & Diez, Ramon Oller koreografoaren Metros taldea, Balentziako Ananda Dansa eta Euskal Herriko Arteszena konpainia bere *Amets Beroak* obrarekin. Biharkoa berriz, arratsaldeko 8etan izango da ikusgai. Sarrerak 800 pta.tan salduko dira eta Gazte Txartelarekin 600ean.

LUIS CARRASCO, FLAMENKO GITARRA JOLEA

“Haserretuta nagoenean gitarrak ez dit kasurik egiten”

Bi hilabete pasatuko ditu Arrasaten Al Andalusek antolatu duen gitarra flamenko ikastaroa ematen. 44 urte ditu eta Cordobakoa da. Lehenengo aldiz gitarra 14 urterekin hartu zuen eskuartean eta ordutik ez du deskantsatzen utzi. Esaten duenez, flamenkoa jotzeko sentimendua behar da, gitarra eta gitarrajolearen artean harreman estua dago eta.

— Zer da flamenkoa zuretzat?

— Bizitza, barrutik ateratzen den zerbait. Flamenkoa eta partiturak ez dira ondo eramaten, flamenkoa ezin da partituretan idatzi. Sentitu eta bizi egin behar da. Esango nuke gitarra klasikoa baino askoz inprobisatuagoa dela gitarra flamenkoa, sentimendu hutsa.

— Ikusten denez, zurea bokazioa da...

— Bai, bai... egia da. Bost urte nituenean eta irratian gitarra flamenkoa entzuten nuenean, emozionatu egiten nintzen. Etxean anai-arreba asko ginenez, gurasoek ez zidaten gitarrarik erosi 14 urte bete arte, eta ondoren Fragero gitarristarekin hasi nintzen ikasten. Gero maisu handiekin ibili izan naiz, eta esan daiteke Manolo San Lucarren eskolakoa naizela.

— Zelako maila aurkitu duzu ikastaroan izena eman dutenen artean?

— Oso apala. Ikasteko gogo handia dute baina oraindik asko falta zaie. Dena den, ikasleen artean bada bat, Aitor Escobar arrasatearra, maila ona duena, salbuespen bat da Aitor, pulitu gabeko diamantea.

— Zer behar da gitarrista ona izateko?



— Lehenik eta behin maite egin behar da, bigarrenik asko entzun eta azkenik, denbora eskaini.

— Flamenko ona egiteko andaluziarra izan behar da?

— Ez, ezta gutxiago ere. Horren adibide *El Navarrico* flamenkoa daukagu, Agustín Castejón, flamenkoak eman duen maisurik handienetarikoa bat zen.

— Gitarra eta gitarrajolearen artean kimika berezia egoten ei da. Egia da?

— Jakina egia dela! Nire gitarra Manuel Redes gitarrero kordobarrak egin zidan eta egia da harreman berezia daukagula. Haserretuta nagoenean, gitarrak ez dit kasurik egiten.

— Zer iruditzen zaizu Euskal Herriko folklorea?

— Izugarri gustatzen zait, batez ere *Aurrekua*

aste gazte

■ BEKAK

• Leonarko Bekak, Europako Elkarteko enpresetan praktikak egiteko, unibertsitateko ikasketak burutzen edo bukatu berriak izanik, sekula enpresetan praktikak egin ez dituztenentzat.

• Barne Merkataritzan aholkulari teknikoak prestatzeko 10 beka, Ekonomi eta Enpresa Zientzietan edo Zuzenbidean lizentziatuei zuzenduta. Epea: maiatzak 19.

• “La Caixa” Fundazioak, Estatu Batuetan eta Britainia Handian 98-99 ikasturterako graduatuosteko ikasketak osatzeko beka kaleratu ditu. Epea: ekainak 27.

■ EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

• 1997ko udan euskara praktikatu nahi dutenendako programa. Eskatera epea: maiatzak 26.

■ LANA

• Errioxako unibertsitateak, artxibo eta liburutegiko 4 kudeatzaile eta 9 liburutegi laguntzaile tekniko behar ditu. Epea: maiatzak 15.

• Burlatako udalak, gizar-te langile bat behar du. Epea: maiatzak 23.

■ LEHIAKETAK

• Bergarako udalak, kirol argazkien VIII. Lehiaketa antolatu du. Epea: maiatzak 20.

• Arrasateko San Juan jaiak 1997 Kartel Lehiaketa. Epea: maiatzak 23.

• Ermua Hiriko III. Literatur Lehiaketa, olerkia eta narratiba motza modalitateetan eta gai librean. Epea: maiatzak 31.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Al Andalusek antolatu duen gitarra flamenko ikastaroa ematera etorri da Cordobatik.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Gasteiz erdian atikoa salgai. Egoera onean. Tel.: 79 01 26. Gaez dei-tu.
- Aretxabaletan pisua salgai. Erreformatuta eta erdi jantzita. Tel.: 79 25 71. Dei egin denda ordutegian.
- Juan Carlos Gerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.
- Pisua salgai Izarra dorrean. Tel.: 65 37 21.
- Etxebizitza salgai Torrepe dorrean. Tel.: 79 61 68.

2. Erosi

- Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gaez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

- Duplex-a alokatzen da Zarautzen. Txukuna eta hondartzatik 200 metro-ra. Prezio egokia. Tel.: 83 56 36.
- Pisua alokatzen dut erdialdean. Tel.: 79 59 96. Dei egin Setatik aurrea.
- Ezkaray-en pisua alokatzen da uztaile eta irailean. Oso ondo prestatutako urbanizazio baten (pizina, tenisa, umeendako tokiak...) Tel.: 79 31 56.
- Peñiscolan pisua alokatzen da uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 05 88.

4. Errentan hartzeko

- Alokatzeko pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 79 77 32 / 79 97 55.
- Etxebizitza alokatuko nuke ahal balitz Zigarrolan. Tel.: 79 02 66. Igone.
- Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.
- Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

5. Etxe konpartituak

- Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.
- Pisua osatzeko laguna behar dugu. Eskola Politeknikoaren ondoan. Tel.: 77 05 00.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Etsakerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Etsakerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdut
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Konpartitzeko edo alokatzeko etxe bila nabil. Tel.: 79 99 82. Iñaki. Gaez.

GARAJEAK

7. Saldu

- Jose Luis Iñarra kalean garajea salgai. Tel.: 79 36 69.

9. Errentan emateko

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.
- Garaje itxia alokatzen da Uribarri etorbidearen 3an. Tel.: 79 33 48.
- Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.
- Garajea errentan emateko daukat Kontzeziñon. Tel.: 79 55 20.

LOKALAK

12. Saldu

- Musakolako kiroldegia ondoan lokal komertziala salgai. 76 m².

- 8.300.000 pta. Negoziagarriak. Tel.: 79 59 75.

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu lokala salgai. 100 m². Bi solairu. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

- Arrasaten erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerias kalean, 72 m². Tel.: 79 97 86.
- Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

- Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 94 62.
- Klinika laguntzailea eta geriatrian titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.
- Emakume gaztea gertu etxea, atarreak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.
- Esperientziadun neska etxeko lanak

egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

- Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

- Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

- Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gaez.

- Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

18. Etsakerak

- Neska behar da tabernan baten lan egiteko. Deitu 3etatik 5etara. Tel.: 79 00 34.
- Hiru edo lau hilebeterako elektrizita bat behar dut tentsio bajuko berifikazioak egiteko. Tel.: 907 41 89 71. Santi.

- Kamareroa behar da. Tel.: 79 68 57.

- Emakumea behar da igandetan lan egiteko. Autoa beharrezkoa da. Tel.: 79 47 85.

- FP2 duen mutila elektrizitatean eta elektronikan aditua dena behar da. Tel.: 79 06 48.

- Aretxabaletako Zirt-Zart ileapaindegian lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 09 44.

- Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: (945) 44 50 86.

- Esperientziadun pertsona bat behar da enmarkazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda ordue-tan.

- Gidatzeko kameta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

19. Bestelakoak

- Gazte talde batek ezkontzatan abestuko luke. Oso merke. Tel.: 79 79 85.
- Jaunartze eta beste ospakizunetan soinu jotzeko prest gaude. Dantza eta giro ederra preziorik onenean. Tel.: 79 51 20 Igor eta 79 24 85 Jon. Gaueko 9etatik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Alemaneko klase partikularrak eman edo itzulpenak egingo nituzke. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 13etatik aurrera.

• Esperientziadun neska larunbat goizetan klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 06 39.

• ESOk klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientzia. Tel.: 79 56 78.

21. Eskerak

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsalde edo gauez. Tel.: 79 55 04.

• Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

• 3. BUP eta 1. LOGSEko matematika eta fisika klase partikularrar behar ditut. Tel.: 79 66 56.

• Elektronika analogikoko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 41 25. Aitor.

gai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

• Opel Kadet GSE salgai. SS-X. Prezio interesgarria. Tel.: 79 74 10.

• Opel Corsa GT. Tel.: 79 93 75 / 79 22 50. 8 urtekoa. Egoera ona.

• Renault 11 TX autoa salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Renault 11 TXE, SS-X salgai. Tel.: 79 22 85. Mikel.

• Suzuki DR2. 50 cm³ salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Bultaco Cross 350 motorra salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Renault 5 GTL salgai. SS-P. Egoera ona. Tel.: 79 81 35 / 77 93 30.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, erubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

tzeko. Tel.: 79 82 06.

• Butaka relax salgai. Tel.: 79 22 92.

• Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.

• Aluminiozko bizikleta salgai. XT piezak ditu. 50.000 pta. Tel.: 79 70 96. Felix.

• Harategiko 3 gondola, kuttxa erregizatzailea, markatzeko 2 makina, pisu elektronikoa, okindegiko mostradorea eta dendetarko tresna gehiago salgai. Merke-merkeak. Tel.: 79 59 75.

• Igloo markako denda salgai. 5 lagunendako. Egoera onean dago. 8.000 pta. Tel.: 71 52 38. Maider.

• Auto barruan umea eramateko aukia salgai. Tel.: 79 44 14. Betatik aurrera deitu.

• Macintosh Classic ordenadorea eta inprimagailua salgai. Tel.: 36 03 89.

• Salgai: Rueka bat, egurrezko arka tailatu bat, egurrezko seaska tailatu bat, egurrezko jarleku luze bat, eta bi egurrezko kutxa, denak egur onetan eginak. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Idazmakina mahai eta guzti salgai. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak

arte. Astelehenetan ezik.

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurpilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

27. Erosi

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatorea erosiko nuke. Tel.: 79 55 88.

31. Galdu

• Eroskiko aparkalekuan zapi urdin bat topatu baduzu dei egin 71 44 56 telefonora. Esker ordaina egongo da.

• Eguzkitarako betaurreko graduatuak galdu zaizkit. Tel.: 79 40 09. Gauez.

32. Aurkitu

• Poltsa bat aurkitu nuen Urkulun, apirilean, zapatua. Jabeak, gaueko 8etatik 10etara dei dezake. Tel.: 77 00 18.

MOTORRA

DENETARIK

23. Saldu

• Yamaha Virago 1.100 motorra sal-

26. Saldu

• Soprani markako soinua daukat sal-

ZATTOZ EZ ZARA DAMUTUKO

AZKAR IBILI,
BAKARRIK ZU FALTA ZARA



3 urteko garantia
edo 100.000 km. eta
6 urte antikorrosioa.

segur NISSAN

NISSAN FINANZAKETA



NISSAN MICRA



NISSAN ALMERA



NUEVO NISSAN PRIMERA

NISSAN MAXIMA OX



INTERNET: [HTTP://WWW.NISSAN.ES](http://www.nissan.es)


ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20500 ARRASATE

NISSAN

■ Joseba Arregi

ARRASATEKO BAKE EPAILEA



Jubilatuta dago baina orain dela bi urtetik Arrasateko bake epaile lanetan dihardu. 1928ko martxoaren 3an jaio zen Arrasaten eta bertan bizi izaten jarraitzen du. Seme bat dauka. Bere familiaren baserriagatik, *Kataide* deitzen diote.

1. Zein da zure horoskopoa? Piscis.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Zaldi arabiarra.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Behar beste ez entzutea/Beti laguntzeko prest egotea.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Ezerk.
6. Amets bat? Pakea eta justizia mundu guztiarendako.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Injustizia.
8. Gertakizun historiko bat? Pertsonalki nire ezkontza.
9. Nor miresten duzu? J.M. Arizmendiarieta.
10. Zeri diozu beldurra? Minbiziari.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Ama hil zenean.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Errepideak hobetzea.
14. Eta zuri? Hizkuntzak.
15. Lanbidez aldatzekotan? Ez nuke aldatuko.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Udalaitez.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Kinto bazkarira joan.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egunkaria eta *El Mundo*.
19. Gustoko janari bat? Antxoak.
20. Liburu on bat? *El mundo de Sofia*.
21. Filmerik onena/txarrena? Robin Hood/Rambo.
22. Musika talderik onena/txarrena? Oskorri/Rafael.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? Txiskola/*Lo que necesitas es amor*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Familiako abizenen harmarria tailan.
25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Irakurtzen eta soziedadean.
26. Oporretarako toki bat? Arnedilloko balnearioa.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Ontziak garbitzea.
28. Gomendio bat? Ez izan inbidiosoa.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Ez dakit.
30. 200 milioi irabaziz gero? Gehiago bidaiatuko nuke.

ERRENTA AITORPENA 96


Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**

Basabe Industrialdea, Pab. C • ARETXABALETATel.: 79 88 75 / 79 75 99 • Faxa: 77 10 29



TELEMATIKA:

aitorpen arruntia kobratzeko modurik azkarrena.



12 faszikulutan

MUNDUKO ATLASA



MUNDUA • KONTINENTEAK
ESTATUAK • ESTATURIK GABEKO HERRIAK
EUSKAL HERRIA



KLAUDIO
HARLUXET
FUNDAZIOA

asteazkenero eta larunbatero

Egunkaria rekin


390 pta
16 libera

Maiatzaren 10ean eta 11n tapak eta
Euskal Herriko errepideen mapa dohainik

■ Horoskopoa

- **Aries** Zure ondoan ez da bakerik, ezin lasai bizi.
- **Taurus** Gutxien espero denean etortzen ei da amodioa.
- **Gemini** Apain-apain jantzi eta atera kalera.
- **Cancer** Erraza zirudien ametsa.... konplikatu egin da.
- **Leo** Dena eman baina laurdena jasotzen duzu.
- **Virgo** Bene benetan nahi baduzu, horixe gertatuko zaizu.
- **Libra** Zergatik ari zara beti marmarean?
- **Scorpio** Oso irribarre polita duzu, baina baita zaratatsua ere.
- **Sagitaris** Bizimodua gogorra da, eta gogor egin behar zaio aurre.
- **Capricorn** Zein da zure bokazioa? Zaila asmatzea!
- **Aquarius** Ez zara zure burua defenditzeko gai ere.
- **Piscis** Ulertezina, ezta? Batzutan zaila da jendeari ulertzea.

■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Moreno, Euskal Herriko makailau txapelketa irabazi zuenaren izena. 8. Benetan uste denaren aurkakoa adierazten dartzan umore mota. 9. Idatziz egiten den lana. 11. Eguzki. 12. Akitu aditzaren infinitiboa. 13. Xabier, euskal poeta eta kantari gipuzkoarra. 15. (Ald.) Ziatzearen ekintza. 16. (Ald.) Damu izan. 18. Radioa. 19. Indarkeriaz norbaiten aurka egitea.

Bertikalak 1. Arabako ibilgailuetan. 2. Zerbaitetan trebatzeko egiten den lan praktikoa. 3. Gizendu. 4. Euzko Nekazarien Alkartasuna. 5. Kostalde Ur dineko hiria. 6. Topekada, burukada. 7. Aita Santuaren enbaxadorea. 10. HAITIko bokalak. 11. Hodeietatik maluta zuritan erortzen den ur izoztua. 14. Kumeak erditzeko ahalmena duen sexuko animalia. 17. Sexu maskulinoa duen animalia.

Horizontalak: 1. Valentín, 8. Itonja, 9. Idazlan, 11. Eki, 12. Akitu, 13. Lete, 15. (Ald.) Zia, 16. (Ald.) Damutu, 18. Ra, 19. Eraso.
Bertikalak: 1. VI, 2. Artiketa, 3. Loditu, 4. ENA, 5. Niza, 6. Talkada, 7. Nuntzio, 10. Aii, 11. Elur, 14. Eme, 17. Ar.

Hitzaldia

Intsumisioa, kode penal berria eta EUDIMA.



Maiatzaren 15ean (osteguna) • Monterronen • Arratsaldeko 7etan

Antolatzailea: Arrasate Antimilitarista, EUDIMA eta Arrasateko Udala



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■



Motelak: Telekomedia berria ostegunetan ATBn

“Motelak” izeneko telekomedia berria sortu dute Kukaratzako Moteleko lagunek eta datorren ostegunetik aurrera Kukaratzako Motel lehiaketarekin batera eskainiko da. Protagonistak Bingen, Maije eta Idoia suediarra dira. Idoiak arrain-

degi batean egiten du lan eta nahiko umore garratza ei du. Bingen lotsagabe bat da, inguruak nahasten inork baino hobeto dakien horietakoa. Maije berriz, neskak patxadatsu, lasai eta despistatua. Hiru lagunak Zarugalde kaleko pisu

batean bizi dira elkarrekin orain dela 15 egun. Euren artean, nahaste bat baino gehiago sortuko da. Barre egiteko aukera “Motelak” komedia berrian Unai Torres, Ane Garmendia eta Idoia Patrizio aktoreekin batera!


“Munduari Buelbaka” ATBn

Datorren asteazkenetik aurrera munduari bueltak ematen hasiko da Arrasate Telebista.

Astero-astero herrialde bat ezagutzeko aukera izango da, bertan bidaiari egondako lagun bati esker. Askotan irudiak hitzak baino garrantzitsuagoak izaten direla eta, diapositibak ere erakutsiko ditu elkarrizketatuak.

“Munduari Buelbaka” saioa Alberto Etxebarria atxalbaltarrak estreinatuko du. Alberto Indian eta Bhutan-en izan zen iaz.

Gaueko 9.30etan hasiko da Maria Agirre kazetariak gidatuko duen saioa.



■ ATBko asteko programazioa

9 Ostirala	12 Astelehena	13 Asteartea	14 Asteazkena	15 Osteguna	16 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Lotsa Barik (Errep.)	13.30 Munduari Buelbaka (Errep.)	13.30 Kukaratzako Motel (Errep.)
21.30 Astebete	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	19.15 Kukaratzako Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Lotsa Barik	21.00 Munduari Buelbaka India-Bhutan Gonbidatua: Alberto Etxebarria	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratzako Motel	

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50



San Agustin da Zarugalde kaleko zaindaria, eta sasoi batean ospakizun politak ere egiten ziren haren omenez, baita erromeria ederrak ere. Argazkian ugarixo txapelketaren irudia ikus daiteke, ea zeinek ugarixo gehien harrapatu, hori izaten zen kontua.

Argi ikusten denez, erreka garbi garbi zegoen orduan. Hortik beherago presa bat ere ba ei zegoen, aingiren gordeleku izaten zena. Errekaz gora, berriz, normala ei zen loinak, amuarrainak eta kangrejoak ikustea.

Etxe bat ere ikusten da argazkian. Bertan egon zen Jose Miguel, Juan Bautista

“Mondragones” eta Leon Azkarteren okindegia. Aurrez, baina, Klarisen komentua ere izan zen. Hortxe parean, errepidearen bestaldera joateko pasabide bat ere bazegoen. Madrileramateko autobusak Pasaiara iristen ziren, eta derri gorrez bertatiko pasatu behar. Kontua da pasabidea jotzen zutela. Arazoa konpontzeko

sistema ezin hobea aurkitu zuten, hantxe bertan zegoen Zarugaldeko eskolako mutiko denak eskolatik atera eta autobusean sarrerazi. Esaten dutenez horrela autobusek ez zuten pasabidea jotzen.

Urtea: 1953-8-28

Informazioa: Josu Otadui.

Argazkia: Josu Otadui.



AMI OINETAKOAK

oinetakoan autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

ABENTURAZ BETERIKO HIZKUNTZA

Oporrak gozatuz, ingelesa praktikatu!

- **Spainian :** Madril, Cazorla-Segura, Costa Brava-Girona, Galizia-Rias Baixas eta Sierra de Gredos
- **Hizkuntz ikastaroak atzerrian.**
- **Atzerrian BUP eta COU ikasturtea :** Estatu Batuetan eta Britainia Handian



Garibai, 6-B • ARRASATE • Tel.: 77 11 06



ARGÍ PLASTIC

*Tailerra eta bulegoa: Zigorrola, 1-8 pabiloia
Tel.: 77 11 30 • ARRASATE*

- PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean.
- Zerbitzu profesionalena.

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik!**

KONTU HANDIZ ZAINDU BEHARREKOAK UTZI GURE ESKU

HILETA ZERBITZUA

Zerbitzua eskaintzea edo indemnizazioa.
Ehorzketa herria aukeran.

ASISTENTZIA

Gaisoaldi edo istripua.
Munduko edozein lekutan.
24 orduko zerbitzua.

ZURE FAMILIA DELAKO BABESTU ZURE HEGAPEAN GAINERA OSO DIRU GUTXIGATIK

HERIOTZAGATIK
ELBARRITASUN IRAUNKORRA
ERABATEKO ELBARRITASUN IRAUNKORRA
ETXEKO ZERBITZUA/ ASISTENTZIA BIDAIA/OSPITALIZAZIO GASTUAK/SEME ALABEN BEKAK

INFORMA ZAITEZ 79 89 00 edo
Garibai Etorbidea, 16.ean.



MAPFRE

Garibai etorbidea, 16 ARRASATE
Tel.: 79 89 00 / 79 67 22

sofa leku

a eme... interiores



易是
利必
理處

centro hogar MUEBLES

grupo



Amuebladora Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 - ARRASATE - Tel. 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92
sofa leku, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92

